

# EGIAZKO ZORIONA EZ DA DIRUZ EROSTEN



2017/2018

Tutoretzak

**ERABILI ZURE DENBORA LIBREA MEREZI DUENERAKO**  
Zuk zeuk irabaziko duzu, eta planetak eta guztiok irabaziko dugu.



**HEZKUNTZA EZ-FORMALA (HAURRAK)**

# IRAKASLEGOA

## Gaiari buruzko sarrera

Azken urteotan gure ikastetxeetan gauzatutako garapenerako hezkuntzako kanpainak izendatzailerikomuna dute: kontsumo arduratsua, hainbat ikuspegitatik begiratuta (elikadura, ingurumena, moda, etab.). Gure kontsumo-ereduen erritmo azkarraren ondorioz, zehazki, herrialde aberatsetako gizarteetako kontsumoaren ondorioz, milioika pertsonaren eskubideak urratzen direla ikusi dugu.

Ikasturte honetan, **propositiboak izan nahi dugu**, eta **bizimodu apala** egiteko gonbita egin nahi diegu gure ikastetxeetako ikasleei, kontsumoaren inguruan mugatzen ez diren balioez eta esperientziez gozatzeko; horrela, ingurumena ez dugu kaltetuko eta munduko beste pertsonen bizibaldintzei ez diegu eraso egingo.

Gure denbora adrenalinaz betetako entretenimendu sofistikatuekin betetzeko ohitura hartu dugu, eta estresa eta hondakinak sortzen dituzte horrelakoek; eta haurrei helarazten diegu bizitzeko eredu hori. Badirudi gure aisialdiaz eta gure bizitzako plazer arruntez gozatzeko modua ahazten ari garela.

Ikasturte honetan, gure ikasleei ikusarazi nahi diegu badirela beste modu batzuk gure denbora librea bizitzeko eta hartaz gozatzeko, **errespetutik, solidaritatetik, elkarbizitzatik, soiltasunetik** eta **naturaren zaintzatik** datozenak



## Tutoretzen helburu nagusia

Gure denbora libreaz egiten dugun erabilerari buruz gogoeta egitea, eta kontsumoan oinarritzen ez diren eta giza eta ingurumen-eskubideak urratzen ez dituzten aisialdi-aukeren alde egiteko gure gaitasuna garatzea.

## JARDUERAK

### 0. jarduera (kanpainaren bideo nagusia - HAURRAK): **Maria eta Mauro**

**Zer gai lantzen dituen:** materialismoa, kontsumoa, soiltasuna eta apaltasuna

**Aurreikusitako denbora:** 45'

**Jarduera mota:** bideoari buruzko gogoeta

**Laburpena:** ikasgelan giro egokia sortu ondoren, bideoa ikusiko da. Gero, biribilean kokatuko gara, entzuteko jarrera hartuta, horma-irudiaren inguruan egingo den gogoetan parte hartzeko.

#### Helburuak:

- Haurrak jabearaztea materialismoa ez dela garrantzitsua.
- Entzuteko jarrera eta elkarrenganako errespetua sustatzea ikasgelako lagunen artean.
- Ikasgelan sortu den elkarriketan, parte-hartzea bultzatzea.

#### Materiala:

- Mariaren irudia
- Mauroren irudia
- Horma-irudia
- Arkatz markatzaileak, orrian idazteko

**Jarraibideak:** jarduerari ekiteko, giro lasaia lortu behar da ikasgelan, eta egitera goazen horretan arreta jartzeko eskatuko zaie ikasleei

Bi pertsonaia ageri diren bideo bat ikusiko da; garrantzitsua da argibiderik edo erreferentziarik ez ematea ikusiko dutenari buruz. Begiak eta belarriak zabal-zabalik edukitzera eta ahal duten arreta gehien jartzera gonbidatuko dira.

Bideoa ikusi ondoren, zirkulu erdi bat osatuko dute; horrela, jardueran parte hartzen ari diren guztiek, baita irakasleak ere, elkarren aurpegiak ikusi ahal izango dituzte.

Horma-irudia ezarriko da horman. Bi zati izango ditu horma-irudiak: ezkerreko aldean, Maria (marrazki bat egin dezakegu, edota irudi bat itsatsi), eta eskuineko aldean, Mauro. Bideoa aztertzen hasteko, bi protagonista horiek bereizten dituzten elementuak alderatuko ditugu. Lehenengo mailetako haurren kasuan (Haur Hezkuntza + 1. eta 2. mailak), irakasleak marraztu, adierazi edo idatziko ditu sortzen doazen ideiak (irakurtzeko eta idazteko duten mailaren arabera). Goragoko mailetan (3., 4., 5. eta 6. mailak), ikasleak beraiek irten daitezke ideia bat edo beste azaltzera.

Jarduera dinamizatzen ari denak ez dauka zertan parte hartu, baina garrantzitsua da entzuten ari dela adieraztea, eta ideiak jasotzeaz arduratzea. Jardueraren dinamizatzaileak bidera dezake gogoeta, honako alderdi hauei buruz pentsatzera bultzatuz:

## HEZKUNTZA EZ-FORMALA Haurrak

- Daukagun material guztia horren garrantzitsua ote den.
- Itxuraz, bideoko zein pertsonaiak disfrutatzen duen gehien.
- Mauro eta Mariak asteburuan egin dituzten jolas edo jardueren artean, zein dugun gogokoen.
- Zer jolas dugun gogokoen, zerk barre eginarazten digun gehien, eta ea horretarako jostailuak behar ditugun.



## 1. jarduera: Nork erabakitzen du zer dudan gustuko?

**Zer gai lantzen dituen:** Kontsumo-ohiturak, moda, publizitatea

**Aurreikusitako denbora:** 20'

**Jarduera mota:** Marrazkia eta gogoeta

**Laburpena:** jarduera honetan, orri batean gustukoaren duten pertsonaia marrazteko edo idazteko eskatuko zaie haurrei, eta, beste orri batean, lehen gustuko zuten pertsonaia bat marraztu edo idatziko dute. Gero, bi horma-irudi egingo dira, eta gogoeta egingo da gure gustuak aldatzeko izan ditzakegun arrazoiei buruz; zenbait galdera egingo zaizkie horretarako.

### Helburuak:

- Gure denbora libreaz egiten dugun erabilerari buruz gogoeta egitea, eta kontsumoan oinarritzen ez diren eta giza eskubideak urratzen ez dituzten aisialdi-aukeren alde egiteko gure gaitasuna garatzea.
- Publizitateak nola eragiten digun jabetzen hastea.

### Materiala:

- 2 orri haur bakoitzeko
- Koloretako arkatzak
- 2 kartoi mehe handi, horma-irudiak egiteko

### Jarraibideak:

Idea ona izan daiteke jarduera biribil handi batean bilduta hastea, eta 1. eta 3. jardueretarako ere balio izango du, gainera, biribil horrek. 2. jardueran, taldeka lan egingo dute.

Bina orri emango zaizkie haurrei. Orriotako batean gustukoaren duten pertsonaia bat marrazteko edo haren izena idazteko eskatuko diegu: fikziozko pertsonaia bat izan daiteke, edo abeslari bat, kirolari bat... Beste orrian, txikiagoak zirenean oso gustuko zuten baina orain gustatzen ez zaien beste pertsonaia bat marraztuko dute, edo haren izena idatziko dute.

Hamar minutu izango dituzte haurrek bi orriok osatzeko. Gero, idatzi edo marraztutako pertsonaiak bateratuko dituzte. Bateratze-lan hori ahoz egin daiteke, nahiz izanez gero, edo orri horietako bakoitza paper jarraituan jar dezakete, bakoitza dagokion tokian. Horma irudi batean, "Lehen gustuko nituenak" idatziko da, eta, bestean, "Orain gustuko ditudanak".

Egindakoa bateratu ondoren, elkarrizketa txiki bat egingo da, honako galdera hauen inguruan:

- Zergatik ez dituzue gustuko orain lehen gustatzen zitzaizkizuen pertsonaiak?
- Zergatik gustatzen zaizkizue orain lehen gustuko ez zenituzten pertsonaiak?
- Gustuko dituzten pertsonaia horiekiko gauzarik baduten galdetuko diegu (jostailuak, jantziak, eskolako materiala...), eta gogoeta egitera bultzatuko ditugu gero. Zer gertatuko da gauza horiekin jada pertsonaia horiek zuen gustuko izateari uzten diotenean? Gertatu zaizue inoiz horrelakorik?

Galdera horietatik abiatuta, modaren edo publizitatearen eraginpean dauden kontsumo-ohiturei buruz gogoeta egin dezaten lortu nahi dugu.



## 2. jarduera: GARRANTZITSUENA JOLASTEA DA, EZ JOSTAILUAK IZATEA

**Zer gai lantzen dituen:** Denbora libre, jolasa

**Aurreikusitako denbora:** 25'

**Jarduera mota:** Jolas bat asmatzea

**Laburpena:** 4 edo 5 laguneko taldeetan, jolas bat asmatuko dute, jada erabiltzen ez dituzten beren jostailuez baliatuz.

### Helburuak:

- Sormena garatzea, gauzak berrerabiliz eta denbora elkarrekin partekatuz aisialdiaz gozatzeko beste aukera batzuk badirela jabe daitezen.
- Gure denbora libreaz egiten dugun erabilerari buruz gogoeta egitea, eta kontsumoan oinarritzen ez diren eta giza eskubideak urratzen ez dituzten aisialdi-aukeren alde egiteko gure gaitasuna garatzea

### Materiala:

- Erabiltzen ez duen jostailu bat ekarriko du haur bakoitzak.

### Jarraibideak:

Jarduera honetarako, jada etxean erabiltzen ez duten jolas edo jostailuren bat ekarriko dute aurrez haurrek gelara. Ikasgelako toki batean bilduko ditugu jostailu horiek guztiak. 4 edo 5 laguneko taldeetan bilduko ditugu parte-hartzaile guztiak.

Jolas berri bat egiteko proposamena egin behar du talde bakoitzak. Asmatuko duten jolas horretarako, etxetik ekarritako jostailuen gauzak erabili ahal izango dituzte.\*

Jolasa definitzeko, zer-nolako jolas mota garatu nahi duen erabaki beharko du talde bakoitzak: mahai-joko bat, lorratzen joko bat, oroimena lantzeko joko bat... Zer jolas mota egin nahi duten erabakitzen dutenean, jolasa bera asmatu beharko dute, eta fitxa xume bat bete behar dute horretarako; horrelako fitxa bat izango da, eta jolasaren ezaugarriak bildu ditu:

- JOLASAREN IZENA:
- JOKALARI KOPURUA:
- BEHARREZKO MATERIALA (etxetik ekarritako zer elementu erabiliko diren) :
- JOLASAREN ARAUAK:

Planteamendu honen moldakortasunari esker, askotariko adimenak landu daitezke; izan ere, proposatzen diren jolas moten arabera, gaitasun ugari jorratuko dituzte: gaitasun zinestesiko- korporala mugimendu-jokoetan, gaitasun logiko-matematikoa dadoekin egiten diren jokoetan, hizkuntza-gaitasuna jolasaren arauak idazterakoan, etab.

Fitxa hori idazteko, lankidetzan oinarritutako lan-egituraren bat erabil daiteke, berori lantzen guztiek parte hartuko dutela bermatzeko. "Orri birakaria" erabil daiteke: fitxa bat izango du talde bakoitzak, eta, txandan-txandan, taldekide guztiei pasatuko zaie. Horrela, guztiek parte hartuko dute jolasaren atalak idazten, nahiz eta erabaki guztiak taldean hartuko diren



## HEZKUNTZA EZ-FORMALA Haurrak

Beharrezkoa iruditzen bazaigu, zenbait aukera proposa ditzakegu taldeen sormena bultzatzeko; jarduera honetako dinamizatzaileak jolas hau erabil dezake, adibidez, edo bururatzen zaion beste edozein:

### JOLASERAKO PROPOSAMENA:

- JOLASAREN IZENA: Ukitu eta marraztu
- JOKALARI KOPURUA: 4, binaka
- BEHARREZKOA DEN MATERIALA: orri bat eta arkatza bikotze bakoitzarentzat, zapiak edo oihal zatiak begiak estaltzeko, eta umeez gelara eramandako jostailuak.
- JOLASAREN ARAUAK:
  1. Txandan-txandan jolastuko dira bikoteak. 1. bikoteko bi kideek begiak estaliko dituzte. Horietako batek arkatza eta orria ditu eskutan.
  2. Bi jostailu aukeratuko dituzte 2. taldeko kideek.
  3. 1. bikoteko kide batek, artean begiak estalita dituela, jolasa deskribatu behar dio bere bikotekideari (begiak estalita izango ditu honek ere), marraz dezan.
  4. Denbora pixka bat eman ondoren, beren rola aldatuko dituzte, eta 2. taldeak egin beharko ditu deskribapena eta marrazkia.
  5. Aukeratutako jostailuak ondoen marraztu dituen bikoteak irabaziko du.

Hamabost bat minutuko tartea utz diezaiekegu jolasak asmatzeko; horrela, hamar bat minutu geratuko zaizkio talde bakoitzari beste talde batek proposatutako jolasean ibiltzeko. Horrez gain, haurren esku utz daiteke asmatutako jolasen fitxategia, beste noizbait erabiltzeko, eta beste jolas-proposamen batzuk txertatuz osatu daiteke fitxategi hori.



### 3. jarduera: ELKARREKIN ASMATUZ

---

**Zer gai lantzen dituen:** Denbora librea, jostailuak erabiltzeko beste aukera batzuk.

**Aurreikusitako denbora:** 10´

**Jarduera mota:** Bideoa ikustea, eta gogoeta

**Laburpena:** Bideo bat ikusiko da, eta gogoetarako gonbita egingo da.

#### Helburuak:

- Gure denbora libreaz egiten dugun erabilerari buruz gogoeta egitea, eta kontsumoan oinarritzen ez diren eta giza eskubideak urratzen ez dituzten aisialdi-aukeren alde egiteko gure gaitasuna garatzea

#### Materiala:

- Ordenagailua
- Proiektorea
- Bideoa

#### Jarraibideak:

Jarduera honi amaiera emateko, "A cloudy lesson" film laburra ikus daiteke; honako lotura honetan duzue:[www.youtube.com/watch?v=psZmAsH6l3Q](http://www.youtube.com/watch?v=psZmAsH6l3Q) (01:57)

Bideoa ikusi ondoren, gogoeta egitera bultzatuko dira haurrak, film labur horretan agertzen diren zenbait alderdi balioetsiz: sormena, elkarrekin pasatutako denboraren garrantzia, jada baliorik ez dutela diruditen jolas eta objektuak erabiltzeko beste aukera batzuk bilatzeko gaitasuna.

Adibidez, esan diezaiekegu imajinatzeko beren burua putz egiten eta hodei bat sortzen.

Egindako jarduerekin loturak ezar ditzaten saiatuko gara gogoeta horren bidez, denbora elkarrekin partekatzea eta irudimena erabiltzea eskatzen duten aisialdiko aukerak balioets ditzaten, ezer berririk erosi beharrik gabe.





## Eranskinak

### 1. eranskina: JARDUERAREN EBALUAZIOA

Jarduera hau ebaluatu nahi bada, ikasleen parte-hartzeari eta inplikazioari behatzeko proposamena egiten dizuegu, honako hiru item hauek hartuta abiaburutzat:

ITEMAK	BI	O	O	N	G
• Jokabide egokia izan du, bai banaka ari zenean eta bai lankidetzat-taldean?					
• Agertu du interesik jardueretan?					
• Gogoz esku hartu du jardueretan?					